



ZINGILI-ZANGALA ANTZEZTALDEAZ

Gure herrian beti izan da kultur alor guztietan mugitu den jendea. Beraz, ezin da kulturarik egin ez denik esan. Hala ere, kultur alorraren barruan, ba dago aspektu bat oso gutxi bultzatzen dena, eta euskarari dagokionez, askoz gutxiago. Antzertiaren munduari nagokio. Nabarmena da mundu hau ezezagun samar egiten zaigula, basamortu zabal baten gisa. Dena den, basamortuetan oasisen bat egoten da beti eta hori bera da Oreretako antzertiaren basamortuan Zingili-Zangala antzetzaldeak suposatzen duena. Oreretako Kultur munduan denbora luzean ibili eta gero, antzerki egarria sortu zaigu, hau dela eta, oasis horretara, Zingili-Zangala taldearengana hain zuzen, jo dugu, gure egarri hori asetzeko. Beraz, ondoko lerrootan haren historia, zori, zoritxar, helburu, asmo eta gainontzeko gorabeheretatik edan dezakezue.

«Egia esan, Zingili-Zangala taldea lehen zegoen beste talde Batetik, Ikiliklik taldetik hain zuzen, sortu zen. Talde hura desagertu zen eta Zingili-Zangala taldea sortu genuen orain dela hiru urte. Ordudanik hona zenbait antzeztan prestatu dugu. Gure aurkezpena, hemen, herrian, Diputazioaren plazan izan zen, sketchek osatutako antzerki batez, hauen artean Akelarre izenekoa nagusia zelarik. Hau izan zen dei dezakegun gure lehen antzerkia. Bigarrena "Pailazadak" izenekoa izan zen; hemen iadanik hitza sartu genuen. Gero "Kapitain Armiarmaren abenturak" dator; hau honez gero landuagoa zen. Hurrengoa "Kontzertu orkiastikoa", iaz aurkeztua eta azkena, urte honetarako prestatu duguna, "Txirristatzetik nentorren" antzerkia.

Gure bizitza motzean, Gipuzkoan eta gehien bat Bizkaian mugitu gara. Ekitaldiak, jaiak direla eta, Diputazioaren babesean edo Eusko Gobernuarenean ateratzen zitzaizkigun, edo udaletik deitzen ziguten, edo ta ikastoletatik ere. Dena den, euskara dela medio, Bizkaiko ikastoletatik deitzen digute gehien bat, gainera, ikastoletan urtean behin bere jai ospatzen dute eta egun horretara deitzen digute. Beraz, gure antzerkia haurrengana batik bat zuzendua da. Oraingoan, berriz, antzerki berri honetan piskat aldatu dugu eta jende helduarengana zuzendu nahi izan dugu, dena den, jende zabalera, txikira nahiz haundira zuzendua da. Beste aldetik, jendearen harrera ona izan da orokorrean.

Orain, une honetan, sei lagunek osatzen dugu taldea. Gure ideia edo helburua honetatik bizitzea da, gehien bat honetara dedikatzen bait gara. Guk lanbide honen bidez diru piskat irabazi nahiko genuke, baina, oraingoz, ez dugu ezer irabazi eta zor piloa sortu zaigu, zorretan gabiltza.

Antzerkian ibiltzeaz gain, guretariko hiru Beraunen euskara-klaseak, antzerkia eta plastikaren bidez, ematen ibiltzen dira; esperientzia hau interesgarria eta berria da, batzutan zail egiten da, baina ondo dago eta poliki-poliki doa, gainera laguntza material handia da. Gero, beste bat Antzerki eskolan dabil eta beste bik monitorentzako gorputz-adierazpen ikastaro bat ematen dute, hau udalaren babesean. Hortik kanpo, Diputazioarekin lagun helduentzat eta haurrentzat batik bat, ikastaroak ematen ditugu eta Xenpelarren plastika-klaseak ere umeei ematen dizkiegu».

ZINGILI-ZANGALA